


# MARITXIPI eta AMATXO

Joxemari Carrere · Mikel Orbegozo



© Joxemari Carrere  
© Mikel Orbegozo  
© Sare Herritarra

LG: SS 1298-2018  
ISBN: 978-84-09-06582-0

SARE HERRITARRA  
Zaldiaran plaza, 8 behea  
01012 Gasteiz  
dinamika@sare.eus  
harremana@sare.eus  
www.sare.eus  
Euskal Herria 2018

Eskerrik asko Sara Majarenas, Mikel Orbegozo eta motxiladun umeen ahotsa entzunarazten lagundu diguzuen guztioi.

# MARITXIPI eta AMATXO

Joxemari Carrere · Mikel Orbegozo

Sara Majarenasek kartzelan idatzitako ipuin batetik abiatuta



Maritxipiren abenturak dituzue irakurgai, baina izan zitezkeen Jare, Harri, Amets, Xua edo beste hainbesterenak ere. Gaur egun, ama, aita edo biak preso dituzten 106 haur-nerabe baititugu geure artean. Motxiladun haur modura ezagutzen ditugu, eta curen motxiletan hamaika ipuin idazteko adina bizipen gordetzen dira.

Haur-nerabe horiei zigor hirukoitza ezartzen zaie: egunerokoan ama-aita aldamenean izan gabe hazi beharra; guraso presoei egokitu dieten salbuespen legedia dela eta, “noiz etorriko da amatxo-aitatxo etxera?” galderari ezin erantzutea; eta gainera, gurasoekin egon ahal izateko, kontatzen dakitena baino askoz kilometro gehiago egin behar izatea.

Hala ere, motxila urdin horietan etorkizun koloretsu baterako indar eta gogo izugarria dago. Benetako elkarbizitzan eta bakean oinarritutako jendartea eraiki nahi badugu, ipuin honen moduko bukaera izan behar baitu preso eta iheslarien auziak ere. Maritxipi amarekin dago jada, elkarrekin lortuko dugu beste guztiak ere hala egotea.

Oihana Muxika Lazkano

**SARE HERRITARRA**









## IPUINAREN IPUINA

Ipuinaren ipuina, edo, zehatzago esanda: nola azaldu ume bati kartzelan jaio dela? Nola azaldu ume bati, hiru urte betetzean, beretzat *natural* eta *berea* den espazio bat utzi behar duela? Espetxean jaio den umeak ez du espetxea gordintasunetik bizi. Ez zaio *arrotza* egiten. Ama, gainera, bertan bizi da (kasu batzuetan baita aita ere). Gurasoak bertan ditu guztiz ondo ulertzen ez dituen arrazoi batzuen ondorioz; baina guraso hauen lehentasun nagusia lehen urte hauetan umea zoriontsu hazi eta hezte da, oztopoz, krudelkeriaz eta bidegabekeriak beteriko espazioan. Eta baita lortu ere! Normalean gris eta hotz irudikatzen ditugun ziega horiek beraien Txoko bihurtzen dituzte umeek, deitu “gure txoko”, deitu “gure txabolito”, “Gure gaztelu” edo “erreinu”, umeak pozik eta ziur sentitzen dira jaio diren gela horietan.

Baina, bat-batean, hiru urterekin, hori guztia alde batera utzi beharra du haurrak. Bere ama, bere laguntxoak, ama modukoak izan diren kideetatik ere banandu egin behar du. Bat-batean. Hiru urte betetzen dituen egun berean. Ez lehenago, ez beranduago. Egun horretan, salbuespenik gabe.

Eta horretarako, Ama eta Aita horiek eskuragarri duten guztia ipintzen dute martxan: ipuinak, marrazkiak, eskulanak, panpinak eta diren eta ez diren jolas mota guztiak, umeek, ahal bezala, uler dezaten UME MAITATUAK direla. Maitatuenak akaso, zama handiko motxila batekin haziko direnak, ziur aski. MOTXILADUN UMEAK. Baina maitatuenak.

Gu. aldiz, afizionatu soilak gara. Ez gara ez idazle, ez ipuin kontalari, ez marrazkilari, ez jolas berritzaileen ingeniari ere; amak eta aitak besterik ez gara. Gure umeentzat etorkizun hobe nahi dugun GURASOAK. Besterik ez. Hauxe ipuinaren ipuina...



## MARITXIPIREN ABENTURAK

“Zenbat abentura bizitzen diren egunero!”, oihukatu zuen Maritxipik belarretan etzanda. Oso-osoz ozen oihukatu zuen, urruti, oso urruti bizi zen amatxok entzuteko moduan: lagunekin mendi erraldoia irristaka jaitsi zuen; uso bat buruan pausatu zitzaion, baina ez edozein uso, ez, uso mezulari bat!, eta belarrira amatxoren mezua xuxurlatu zion: “Asko maite zaitut”. Mikeltxorekin mundua ibili zuen patinetean. Ene, zenbat abentura!

Bazekien amatxok hurrengo egunean telefonoz deituko ziola, eta abentura guztiak kontatuko zizkion, amatxok irribarre egiteko. Kontatuko zion munduko zoo txikiena egin zuela sugandilarekin, barraskiloarekin, amona mantangorrirekin, zizarearekin... Baina denak libre, nahi zutenean etorri eta nahi zutenean alde egiteko. Libre izatea munduko gauzarik politena da.





## IRRIEN HORMA

Amatxo pozaren pozez zegoen Maritxipiren gutuna irakurtzen. Alabaren abenturak berak ere bizi zituela sentitzen zuen. Mendi garaienak igotzen, munduan barrena ibiltzen, oihan ezezagunak zeharkatzen. Berak ere sugandila bat ezagutzen zuen, goizero-goizero, bisita egiten ziona leihoko burdinen artetik irristatuta. Amona Mantagorri udaberriro etortzen zitzaion, egingo zuen eguraldia kontatzera. Benetan pozik zegoen amatxo Maritxipiren gutunarekin eta bidali zion marrazkiarekin. Beste marrazkien ondoan itsatsi zituen ziegako horman. Horma argazkiz eta marrazkiz beteta zegoen, hamaika kolorez jantziz.

Gauean ohean sartzean, hormari begira geratzen zen. Imajinatzen zuen pitzaduraz betetzen zela, desegin arte. Libre sentitzen zen orduan, Maritxipirekin abentura zoragarriak bizitzen. Ez dago munduan harresirik irudimena eta maitasuna giltzapetuko duenik.




## AMA ETXERA

Azkenean heldu zen eguna! Maritxipi irribarretsu eta pixka bat urduri zihoan errepide luzean aurrera. Zelai amaigabeak begiratzen zituen kotxearen leihatilatik, amatxo gero eta gertuago zegoela pentsatuz. Ilunabarrean, Ilargiak poliki hasi zuen zerurako bidaia. Laster zilar kolorea hartu zuen eta Maritxipik gogoratu zuen behin amatxok esan ziona: “Maritxipi, ilargia begiratzen duzunean, gogoratu une hartantxe ni ere ilargiari begira egongo naizela, eta horrela gure begiradak elkartu egingo dira”. Eta ilargi borobilean amatxoren aurpegi irribarretsua ikusi zuen, eta bera izar bihurtuta amatxoren ondoan.

Errepidea luzea eta amaigabea zirudien kotxean zihoala. Gaur, ordea, bazekien azken bidaia izango zela. Itzulerako bidaian ez zuen ilargira begiratu beharko amaren irribarrea ikusteko, ondoan izango zuelako.

Bihar amatxo etxera itzuliko zen berarekin.



## AMETS URDINAK

Sarak liburua irakurri ondoren, badaki gau horretan amets goxoak izango dituela, ziegako hormak desegingo direla, ilargiak bere aurpegia izango duela, eta zelai zabaletan etzango dela Amona Mantagorri, eta sugandila, eta barraskiloa lagun. Ametsen lurraldean sartzeko begiak ixtear dagoenean, motxilatxo urdina argitzen hasi da berriro. Sarak jakin-minez barrura begiratu eta, poliki-poliki, beste ipuin bat nola agertzen den ikusi du...


## MOTXILATXO URDINA

Aspaldian bezala, gaua helduta, gizatasunik gabeko ohe txiki eta hotz batean lokartzen ari da Sara. Une horretan, ziegako txoko batean argitasun ahul bitxi bat ikusi du. Ondo baino hobeto ezagutzen ditu ziega estuaren zoko guztiak, eta halakorik ez da posible. Erdi-lo egotearen ondorioa izango da. Baina argi urdinxkak hortxe jarraitzen du, Sararen jakin-mina piztuz. Ohetik arreta handiz altxatu da, eta poliki-poliki argi misteriotsurantz gerturatu da. Argia motxila txiki urdin batetik ateratzen da. “Nola da posible?, hau ez zegoen hemen”, pentsatu du Sarak. Apur bat urduri makurtu egin da eta, orduan, harriduraz ikusi du motxila barrutik ipuin bat hasi dela ateratzen, indar magiko batek bultzatuko balu bezala. Ipuinean irakur daiteke: **MARITXIPI ETA AMATXO**. Tentu handiz hartu du ipuina. Ohean etzan, eta irakurtzen hasi da...

## GUTUNAREN BESARKADA

Munduan asko bezala, Maritxipi izeneko neskatxa bat bizi zen. Batzuetan alai, eta bestetan triste egoten zen; baina hori guztioi gertatzen zaigu ezta? Eta egun hartan pozaren pozez esnatu zen. Ostirala zen, eta ostiraletan postariak benetako gutunak ekartzen zituen, letraz, marrazkiz eta muxuz eginak. Gaurko egunak Amatzoren gutuna ekarriko zion.

Goiza urduri eman zuen Maritxipik, etxeko pasilloan gora eta behera, gora eta behera, gora eta behera, amonak, irribarrez esan zion arte: “Pasilloa gastatuko duzu, eta bat bakarrik dugu”. Postaria heldu zen azkenean. Maritxipi saltoka jaitsi zen sotoraino, eta urduri zabaldu zuen postontzia. Hantxe zegoen Amatzoren gutuna! Kontu handiz jaso zuen, eta poliki zabaldu. Amaren argazkia ikusi zuen, irribarre zegoen, eta iruditu zitzaion begi kliska egiten ziola. Besarkada goxo bat sentitu zuen...





## AMATXOREN ALTXORRA

Maritxipi gutuna poliki hasi zen irakurtzen, oraindik ikasten ari zelako, eta, baita ere gutunak poliki irakurtzea maite zuelako, horrela amatxoren ahotsa entzuten zuela iruditzen baitzitzaion: “Badakizu nire altxorrik handiena zu zarela, maitia; eta ez dudala sekula zugandik banatu nahi. Orain ezin duzu nirekin egon hemen, baina abentura pila bat duzu bizitzeko, toki ugari deskubritzeko, zure lagunekin ikastolan ikasi eta jolasteko. Egunero abentura berriak biziko dituzu...”.

Baina Maritxipik kartzelan egon nahi zuen, amatxo aspertuta eta triste ez egoteko eta berarekin abentura asko bizitzeko; eta besarkadak emateko, eta konturik barregarrienak kontatzeko. Barre egiten baduzu, harresirik ez baitago munduan.

Elkarrekin lo egingo zuten eta amets ederrak egin. Pentsamendu hauekin Maritxipi lokartu egin zen amatxok egindako kuxina besarkatuz...



Nola azaldu ume bati kartzelan jaio dela? Nola azaldu ume bati, hiru urte betetzean, beretzat natural eta berea den espazio bat utzi behar duela? Hiru urterekin, bat-batean, kartzela utzi behar dute haurrek eta, orduan, Ama eta Aita horiek eskuragarri duten guztia ipintzen dute martxan, ipuinak, marrazkiak, eskulanak, panpinak eta diren eta ez diren jolas mota guztiak, umeek, ahal bezala, uler dezaten UME MAITATUAK direla.

